

Irakaskuntza gida

1. Ikastaroaren deskribapena

Ikastaroa baltzu edo sozietateen zuzenbidean interesatua dagoen edonori zuzendua dago, bereziki zuzenbideko edo ekonomia eta enpresa ikasketak burutu nahi dituzten ikasleei. Ematen zaien materiala gai desberdinen funtsezko azalpen bat da. Gai horietan sakonago murgiltzeko aukera izango dute aipatzen diren irakurketa gehigarrien bitartez. Irakurritako gai horiei buruzko erreflexio bat egiteko beste aukera bat proposaturiko kasu praktikoak lantzekoa izango da.

2. Helburuak

Lortu nahi diren emaitzak bi dira nagusiki:

- a) Merkataritza kodeak merkatarien artean pertsona fisikoak eta juridikoak, baltzuak, aipatzen ditu. Arrazoi desberdinengatik jarduera ekonomikoak, negozioak, askotan talde moduan antolaten dira. Talde horietan antolatu behar dira kideen eskubide eta obligazioak, eta baita taldearen ordezkaritza eta erantzukizuna hirugarrenetikiko. Baltzuen funtzionamenduaren arazo garrantzitsuenak identifikatu eta dinamika ulertzea da lehenengo helburua
- b) Horretaz gain ikastaroak antolamendu formula desberdinak ezagutzeko aukera ematen du. Bigarren helburua eredu garrantzitsuenak ezagutzea litzake.

3. Gaitasunak

- a) Baltzu (sozietate) mota desberdinak identifikatu eta beraien eraentza judidikoa ulertu.
- b) Baltzuen funtzionamendua ulertu, bazkideen eskubide eta obligazioen sistema ezagutu eta hirugarrenekin sortzen diren harremani buruzko erantzukizun eraentza ezagutu.
- c) Baltzuetan sortzen diren gatazka juridikoei (bai bazkideen arteko harremanetan, bai hirugarrenekin sortutakoetan) erantzun juridiko egoki eta arrazoitua eman.

4. Ikasgaiak

Baltzuen zuzenbidea

1. Teoria orokorra (Sozietate kontzeptua, sailkapena. Sozietatea kontratu bezala).
2. Sozietate pertsonalistak (kolektiboa, komandataria eta partaidetza kontuak).
3. Kapitalezko sozietateak: eraketa.
4. Akzioak sozietate anonimoan eta partizipazioak erantzukizun mugatukoan.
5. Kapitalezko sozietateen organoak.
6. Kapitalezko sozietateen estatutoen aldaketak.
7. Kapitalezko sozietateen desagitea.